

Prudentzio, txizati

Apirilaren 28an, San Prudentzio egunez, Araban oso ohikoa izaten da barraskiloak jatea. Barraskiloen inguruan ordea, nahiko saltsa bada: batzuentzat gutizia dena, besteentzat nazkagarria da. Prestaketa zein garbiketari dagokionez ere, hainbat iritzi eta teoria jaso litezke.

Jarraian barraskiloen prestaketaren inguruko audio bat entzungo duzu. Entzun eta gero, erabaki ondorengo baieztapenak egia ala gezurra ote diren.



1- Barraskiloak: gutizia ala nazka?

	EGIA	GEZURRA
1- Aspalditik jaten dira barraskiloak, baina zenbaitek uste dute ohitura hori Galiziatik mahastietan lan egitera zetozenek ekarri zutela.		
2- Jende itsuak gehiago maite omen ditu barraskiloak ondo ikusten duenak baino.		
3- Makina batekin errazago egiten dira barraskiloak prestatzeko lanak (purgatu, gatza eta ozpinaz nahastu...)		
4- Entzule batek lan handia hartzen du barraskiloak prestatzeko: oskoletik atera, kuzinatu, eta berriro oskolean sartu.		
5- Esatari baten etxean txorizoa edota urdaiazpikoa jartzen zuten tapoi moduan barraskiloaren mamia ihes ez egiteko.		
6- Barraskiloak garbitu gabe egostea hobe da, mami guztia gordetzeko.		
7- Entzule batek dio txikitari esaten zirela barraskilorik onenak kanposantuetako paretetakoak zirela.		
8- Beste entzule batek dio barraskiloak sare batean sartuta itsasora buelta bat ematera eraman behar direla kuzinatu aurretik.		



- Eta zuk? Gustura jaten al dituzu barraskiloak ala gorrotatzen al dituzu?
- Prestatzekotan, nola kuzinatzen dituzu?
- Ba al duzu janariari lotutako fobiarik? Eta gustu arrarorik?
- Zein da inoiz jan duzun gauzarik arraroena? Noiz, non eta nola izan zen?

2- Tradizioa, madarikazioa

Prudentzio deunaren egunean, jai herrikoi guztietan bezala, zenbait erritu eta ohitura errepikatzen ditugu urtez urte, batzuk hobeak, besteak gogaikarriagoak. Horiexek izango ditugu hizpide.

- Zein erritu edota ohitura errepikatzen dituzu urtero Prudentzio deunaren egunean? (bezperako egunean mozkortu, Armentiako zelaietara joan, barraskiloak jan...)
- Zein erritu edota ohitura dira tipikoak zure herriko festetan? (Blusak, txupinazoa, bigantzak, baratxuri zopa gosaltzeko...)
- Tradiziotzat dauzkagun usadio horietatik zein dira zure ustez ohitura sanoak eta zein dira gogaikarriak? Zerrendatu burura etortzen zaizkizuen guztiak.




Taldeka jarrita aipatu dituzuen ohitura gogaikarri horietako bat aukeratu (zezenketak, antzar eguna, kanpandorretik ahuntza botatzea, alardeak...) eta taldea bitan banatuko duzue. Batzuek aldeko jarrera hartuko duzue; besteok, berriz, kontrakoa. Tarte batez nork bere argudioak prestatuta eztabaidatzeari ekingo diozue. Hona hemen egoera:

Herriko jai batzordeko kide zarete eta aurtengo jai egitaraua prestatzen ari zarete. Mahia gainean herriko tradizio gogaikarri bat lehenbiziko aldiz debekatzeko proposamena dago. Erabaki behar duzue aurtengo egitarauan sartu ala ez.

Aurtengo Prudentzio Deunaren jaietarako honako kartel hau proposatu dute aurten. Zer iruditzen zaizue? Eman zure iritzia.

- Iraingarria izan daiteke tradizio zaleentzat.
- Tradizioak ere denborarekin aldatu egiten dira, eta gizarteak aurrera egiten duen bezala, tradizioak ere eguneratu egin behar dira.



1- Barraskiloak: gutizia ala nazka?

	EGIA	GEZURRA
1- Aspalditik jaten dira barraskiloak, baina zenbaitek uste dute ohitura hori Galiziatik mahastietan lan egitera zetozenek ekarri zutela.	X	
2- Jendeitsuak gehiago maite omen ditu barraskiloak ondo ikusten duenak baino.		X
3- Makina batekin errazago egiten dira barraskiloak prestatzeko lanak (purgatu, gatza eta ozpinaz nahastu...)		X
4- Entzule batek lan handia hartzen du barraskiloak prestatzeko: oskoletik atera, kuzinatu, eta berriro oskolean sartu.	X	
5- Esatari baten etxean txorizoa edota urdaiazpikoa jartzen zuten tapoi moduan barraskiloaren mamia ihes ez egiteko.	X	
6- Barraskiloak garbitu gabe egostea hobe da, mami guztia gordetzeko.		X
7- Entzule batek dio txikitan esaten zirela barraskilorik onenak kanposantuetako paretetakoak zirela.	X	
8- Beste entzule batek dio barraskiloak sare batean sartuta itsasora buelta bat ematera eraman behar direla kuzinatu aurretik.	X	